



IKUSMIRA BERRIAK PROGRAMAK AUKERATUTAKO PROIEKTUAK AURKEZTEN DITU

- **Aukeratu dira jada 2015 egonaldi programarako lau proiektuak.**
- **Adituen batzordea Oskar Alegriak, Marianne Slot-ek eta Paz Lázarok osatu dute.**
- **Pogramak laguntza berri bat eskainiko du: REC postprodukzio saria.**

Pasa den otsailean **IKUSMIRA BERRIAK** programa aurkeztu genuen Tabakalera - Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak, Donostia Zinemaldiak eta Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu Fundazioak, Donostia Kultura eta Euskadiko Filmmategia Fundazioaren laguntzarekin.

Programa honen helburua ikus-entzunezko sormena (bere fase guztietan: prestakuntza, ekoizpena eta erakusketa) bultzatzea da. Helburu horrekin deialdia zabaltu genuen lurraldean errota dauden nazio- zein nazioarte mailako hiru jaialdi eta ekimenetan parte hartu izan duten zinegileei (Kimuak film laburren hautaketa, Labo - Clermont-Ferrand Zinemaldiko film labur esperimentalen saila- eta Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketa - EIECINE) eta Euskal Autonomia Erkidegoko zinegileei bideratuta.

Jasotako proiektuak aztertu ostean, Ikusmira Berriak egitasmoak **aukeratu ditu jada 2015 egonaldi programan parte hartuko duten lau proiektuak:**

- *El extraño*, **Pablo Álvarez** (*Santiago de Chile, 1985*), EIECINE.
- *Fleurette French*, **Tamyka Smith** (New York, 1983), Labo - Clermont-Ferrand Jaialdia.
- *IRA 26-2*, **Maidor Oleaga** (Bilbo, 1976), Euskal Autonomia Erkidegoko errealizadoreak.
- *Trote*, **Xacio Baño** (Xove - Lugo, 1983), Labo - Clermont-Ferrand Jaialdia.

AUKERATUTAKO PROIEKTUAK

EL EXTRAÑO

“Nolabait hiri-sinfonia, nolabait entsegu filma, eta, neurri batean, dokumental faltsua”

Errealizadorea: **Pablo Álvarez** (Santiago, 1985). Zineman lizentziatua ARCOS Institutu Profesionalean 2013an. Karrera zehar gai politiko-sozialetan interesa agertu zuen. “Carroña” (2011) eta “De todos los santos” (2012), film laburrak zuzendu ditu, hauek Kratkofil Plus, Bosnia-Herzegovinako Nazioarteko 7. Jaialdiaren sekzio ofizialean eta Bilboko Zine Dokumental eta Laburmetraia Nazioarteko 55. Zinemaldian partu hartuz hurrenez hurren. 2014an “Los resentidos” fikzio-film laburra bukatu zuen, lehiaketa zinematografiko desberdinen parte hartuz, haien artean Donostian ospatzen den Zinema Ikasleen Nazioarteko XIII. Topaketan (EIECINE).

Kategoria: **EIECINE**
Film laburra.

FLEURETTE FRENCH

Fleurette French Floridan bizi den emakume erreala da. Bakarrik sentitzeagatik 911ri (larrialdiei) deitzeagatik atxilotua izan da. Proiektu hau, fikziozko film labur batek, dokumental labur batek eta instalazio batek osatuko dute.

Errealizadorea: **Tamyka Smith** (New York, 1983). Daughters Projects-en kofundatzailea, emakumeek zinean eta komunikabideetan duten papera indartzeko produkzio-etxe txikia.

HE'S THE BEST bere film laburra Clermont-Ferrand Nazioarteko Film Laburren Jaialdian estreinatu zen eta nazioarteko hainbat jaialdietan proiektatua izan da.

Kategoria: **Clermont-Ferrandeko Film Laburren Nazioarteko 37. zinema-jaialdiaren Labo lehiaketa.**
Film laburra eta instalazioa.

IRA 26-2

Elbira Zipitiria, Ira, bere etxean bizi izandako pertsonaiaren presentzia berreskuratzeko egingo duen erritu performatiboa jasoko duen egunkari filmikoa.

Errealizadorea: **Maidor Oleaga** (Bilbo, 1976). Ikus-Entzunezko Komunikazioan lizentziaduna eta Zinema Zuzendaritzan (ECAM-ean) diplomatua. 2015ean, *Ikasketa Feministak eta generokoak* masterra egin zuen, UPV/EHU.

Gaur egun, Agur/Henffych proiektua burutzen ari da, Naomi Heath artista galestarrarekin trukatzeko dituen gutun filmikoetan zehar hasitako sormen erlazioa. Gai nagusia hizkuntza (euskara eta galesa) da.

Kategoria: **Euskal Autonomia Erkidegoko errealizadoreak.**
Film luzea.

TROTE

Fikzioaren eta dokumentalaren artean mugitzen den film luzea da Trote. Aktoreak ez direnekin, kanpoko lokalizazio errealekin, eta historia aurkitzeko filmatze-grabazioekin jolasteko film bat.

Errealizadorea: **Xacio Baño** (Xove - Lugo, 1983). Zinema ikasi du Leongo Unibertsitatean. Hainbat film labur produzitu, idatzi eta zuzendu ditu, haien artean "Estereoscopia" (2011) eta "Anacos" (2012), nabarmentzen dira, ondorengo jaialdietan aurkeztuak: Clermont Ferrand, New directors/New Films MoMA, Telluride Film Festival, Mar del Plata, Las Palmas Jaialdia, Alcine, Festival Málaga-ko Jaialdia, Slamdance, Busan Int. Short film festival, Shnit, Aspen Shortfest...

"Ser y voltar" (2014), bere lehen ez-fikziozko filma, Locarnoko 67. Jaialdian estreinatu zen eta oraintsu Canal + saria eta Clermont-Ferrandeko Film Laburren Nazioarteko 37. zinema-jaialdian epaimahaiaren aipamen berezia jaso ditu.

Kategoria: **Clermont-Ferrandeko Film Laburren Nazioarteko 37. zinema-jaialdiaren Labo lehiaketa.**
Film luzea.

ADITUEN BATZORDEA

Deialdira aurkeztutako proiektuen artean hautaketa egiten laguntzeko, lau erakunde partehartzaileek adituen batzordea osatuko zuten kideak izendatu zituzten: **Oskar Alegría**, errealizadorea (*Emak Bakia baita*) eta Iruñeko Punto de Vista jaialdiaren zuzendaria; **Marianne Slot**, ekoizlea eta herri eskandinaviarretarako Donostia Zinemaldiko zuzendari artistikoa eta **Paz Lázaro** Berlingo Zinemaldiko Panorama saileko programazioaren zuzendaria.

Nazioarteko hiru profesional hauek izan dira IKUSMIRA BERRIAK egonaldi-programa hasiko duten lehen lau proiektuaren lehen balorazioa egitearen arduradunak. Honez gain, aditu-batzordeak proiektuak laguntzeko eta ebaluatzeko ardura izango du, eta kanpoko beste gonbidatu profesional batzuekin batera, jarduera programa osatuko dute prestakuntza fasean.

Adituen batzordeak eginiko baliospenaren ostean, proiektuaren sustatzaile diren erakunde bakoitzeko ordezkari batek (Tabakalera – Donostia Zinemaldia eta Donostia 2016) osatutako epaimahaiak izan du proiektuen hautaketa egiteko ardura.

Oskar Alegría

Iruñea, 1973. Ikasketaz kazetaria, El País egunkariaren *El Viajero* gehigarriko bidaiari erreportajeak idazten ditu eta *Las ciudades visibles*, argazki proiektu artistikoaren egilea da.

Nafarroako Unibertsitateko Ikus-Entzunezko Gidoia Master-ean dokumental gidioen irakaslea da. 2013an Punto de Vista Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdiko zuzendari artistikoa izendatu zuten.

Variety aldizkariak Espainiako ikuspegian etorkizun handiko 10 zinemagileen artean kokatzen du. Bere lehen filma luzea, *Emak Bakia baita*, nazioarteko 70 jaialdietan aurkeztu da, 15 sari jaso ditu, eta 13 hizkuntzatarara itzulia izan da. Versión Española telebista saioak *La Navaja de Buñuel* saria eman zion eta bere filma aukeratu zuen 2013ko Espainiako errebelazio filma gisa.

Marianne Slot

Marianne Slot daniar jatorriko frantziar produktorea da. Eskandinaviako ordezkaria Donostiako Zinemaldian 1998tik, Frantziar Zinema Institutuko (CNC) zenbait batzordetako eta frantziar finantza-erakundeetako kidea, eta Parisko Daniar Etxeko

zuzendaritza-batzordeko kidea.

Slot Machine produkzio-konpainia independentea sortu zuen Parisen 1993an, eta kritikak, bai European, bai nazioartean, goraipatutako film sorta zabala egin du.

Marianne Slotek Lars von Trierrekin lan egin du *Breaking the Waves* (1996) eta *Antichrist* (2009) filmetan. Bent Hamerrekin eta Thomas Vinterbergekin ere aritu da lanean Eskandinavian. Marianne Slotek film ugari produzitu ditu Latinoamerikan; besteak beste, Lucrecia Martelen, Lisandro Alonsoren, Albertina Carriren and Paz Encinaren filmak produzitu ditu.

Oraindik orain, ondorengo film hauek produzitu ditu: *Be Good* (EFAren 2009ko Discovery Sarietarako izendatua) Juliette Garciaren lehen zuzendaritza-lana, H el ene de Cr ecyren *Escort* dokumentala, Marian Crisanen *Morgen* (Epaimahaiaren Sari berezia Locarno 2010en) eta Malgoska Szumovskaren *Sponsoring*. Gaur egun, Marion Vernouxen *Mon Prochain*, Susanne Bierren *The Bald Hairdresser* eta Marcia Romano frantziar zuzendari hasiberriaren lanak ari da produzitzen.

2015ean, Arteen eta Letren Ordenaren Zaldun aintzatespena jaso du.

Paz L azaro

Jatorriz espainiarra, Alemanian bizi da. 2006az geroztik Berlingo Zinemaldiko Panorama saileko programazioaren zuzendaria da eta 2007az geroztik sail ofizialeko lehiaketarako zinta aukeraketaz arduratzen den batzordearen kidea. 2012az geroztik European Film Academy, EFA-ko aukeraketa batzordeko kidea ere bada.

Urteak daramatza ekoizpen zinematografikoan lan egiten, *N madas* (Espainia, 2000), *Cosa de brujas* (Espainia, 2002), *Sobre el arco iris* (Espainia, 2003) filmak edo *Fallen Angel: Gram Parsons* (Alemania, 2004) dokumentala eta Constanza Macras, *Dorky Park Company (No Wonder, Sure)* antzerki lanak ekoiztu ditu besteak beste.

The Match Factory-n lan egin du erosketa-aholkulari bezala, Joachim Trier-en *Oslo August 31st*, Jaime Rosales-en *Sue o y silencio*, Yorgos Lanthimos-en *Alps*, Milagros Mumenthaler-en *Abrir Puertas y Ventanas* eta Athina Rachel Tsangari-ren, Miranda July-ren edo Cesc Gay-ren gidoiak, bezalako proiektuekin. Instituto de la Cinematograf a y de las Artes Audiovisuales (ICAA) erakundeko kide da eta hainbat programa komisariatu ditu, tartean Spanish Film Club.

IKUSMIRA BERRIAK

POSTPRODUKZIO SARIA

Postprodukzioarako laguntza ere eskainiko du Ikusmira Berriak programak.

REC Grabaketa Estudioak egonaldietan garatuko diren proiektu bakoitzerako **postprodukzioarako saria** eskainiko du.

Sariok enpresaren instalazioetan lan egiteko aukera eta postproduziora zuzendutako diru laguntzatan gauzatuko dira, REC estudioak proiektu bakoitzarekin adostutakoaren arabera.

Donostia / San Sebastián, 2015eko ekainaren 3a

--

Esther Cabero
Kordinatzailea | Coordinadora
T. 943 011 311
E. ikusmira@ikusmiraberriak.eu
www.ikusmiraberriak.eu

